

294. alea - 2024ko apirila
Debako herri aldizkaria

Zuhertza euskara
deba elkarte

Berriketan



MADDI ASTIGARRAGA ETA JON LAFUENTE • Baso bete zientzia

Herriko zientzialariak eta beren lana lehen lerrora



ASERORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ARENA BAR

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa
NORA UNZETABARRENTXEA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz
943 830 424 - 653 921 712

Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



BERRIKETAN

294

2024ko apirila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



8 ALBISTEAK
Amillagakoa itxi eta
Artzabalgo hilerri
berrirako lekualdaketa
uda ostean egingo dute



9 HAUTESKUNDEAK
EH Bildu nagusi Deban
eta eskualdean
Eusko Legebiltzarrerako
bozetan



13 ALBISTEAK
Arbil Elkarte Sozialaren
ekimenez, askotariko
ekintzak aukeran
apirilean eta maiatzean



22 ELKARRIZKETA
Lasterko Plazaolako
errotei buruz mintzatu
da Maitane Beristain
bisita gidaria



26 ALBISTEAK
Amagoia Arrietak
zilarrezko domina lortu
du Zagreb World Boccia
Challengerrean



28 AGENDA
Datozen asteotan
gingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketan

LAGUNTZAILEAK



DEBAIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza Euskara Elkarte

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@zuhatzza.com

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/200

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Itziarko Gau Ibilaldia

Oso ibilbide ezaguna da. Dagoeneko 70. edizioa da, 1952. urteaz geroztik etenaldi labor batzuekin. Donostiatik Itziarrerako bidea zirrargarria da, ez bakarrik arratsaldeko zortzietatik goizeko seiak eta erdiak bitarteko ibilbide handiagatik, baizik eta ondo tratatua sentitzen zarelako. Eta erromesaldi hau egiteak elkartasunean eta fedean hazten laguntzen duelako. Hau da, maiatzaren 4an (larunbata) Donostia eta Itziar artean egingo den Gaueko Martxa.

Ibiltariak, adin guztietako erromesek, fededun izan ala ez, badakite Itziarrerako bidea egitea abentura bihurtzen dela, bila dabilen jendea topatzea, eta, era berean, Ama Birjinarekiko maitasuna, gure lurraiekiko maitasuna edo lau gauzak aldi berean adieraztea. Geografia ezaguna da: Donostia, Igeldo, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia eta Itziar. Sinestunek eta ez sinestunek bide bera eta bidezidor berberak zapaltzen dituzte. Batzuk eta besteak, Itziarko santutegiaren gailurrera iristean, urteetan zehar tradizioa, espiritualtasuna, konpromisoa eta sentimenduak mantentzen jakin duen herri honen parte sentitzen dira. Kulturarekin eta fedearrekin egindako topaketa da. Eta Itziar albiste ona dela sumatzea.

Itziarrera erromes doazenek badakite bidean zehar eta Orion, San Martin ermitan, limoidun ura eskaintzen dieten bizilagunen abegikortasunarekin topo egingo dutela, gero Orioko plazan geldituta, goizaldeko ordu biak aldera Getarian hozkailu txiki bat (Insaluseko ura) eta goizaldeko hiru eta erdietan kafe edalontzi bat Zumaian eta gehiago. Badaezpada ere, errefortzuko autobus bat dago Zumaian.

Badira ura, atsedenaldirak, segurtasuna Donostiako Udaltzaingoaren laguntzagatik, hala nola Ertzaintzarena eta Gurutze Gorriaren osandispositiboarena, bai eta amore- eta animo-hitzak ere. Gaueko Martxako lagunek egiten dituzten xehetasun txikiak dira, bidea eramangarriagoa izan dadin. Amaitzeko, eukaristia egingo dugu Itziarren, eta autobusez itzuliko gara etxera.

Joxe Agustin Arrieta, Gau Ibilaldiaren koordinatzailea

Zatoz Senperera!

Aurtengoan ere, Herri Urratsera joan-etorria egiteko autobusa antolatuta dugu elkarlanean herriko hainbat gurasok eta Zuhatza Euskara Elkartek; maiatzaren 12an ospatuko da Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaiak Senperen.

Ortzadarra lelopean egingo da Herri Urrats, eta Neomak taldearena izan da abestia sortzeko ardura. Iazkoa formatu "murriztuan" egin behar izan zen, eguraldi txarraren ondorioz, eta aurtengoa "inoiz baino handiagoa" izango dela aurreratu dute antolatzaileek; bi gune berri eta eszena bat gehiago izango ditu ikastolen aldeko festak.

Seaskako ordezkariak jaialdira bertaratzeko dei berezia egin diete Euskal Herri osoko euskaltzaleei, "euskararen kontrako oldarraldiari erantzuteko, eta munduaren aitzinean euskaraz bizi nahi duen herri bat erakusteko". Eta, horrez gain, jakinarazi dute aurten bildutako dirua Beskoitzeko (Lapurdi) ikastola berria eraikitzeko izango dela. Horiek hala, deialdi horrekin bat egin, gurean ere Senperera joateko gonbidapena egin nahi diegu Debako eta Itziarko euskaltzaleei.

Autobusa 08:45ean abiatuko da Debatik, estalitako pasealekutik, eta hamar minutu beranduago jasoko du jendea Itziarko biribilgunean. Itzulera ordua 19:00etan izango da, Senperen. Txartelak salgai daude dagoeneko Zalburdi tabernan eta Bikain jatetxean, 15 euroan.

Zuhatza Euskara Elkartea





EIDER ALDALUR

XXI. mendea

Ekarri al digu ezer onik mende honek? Telefono mugikorraren erabilera hedatua, Irakeko gerra, 2008ko krisi ekonomikoa, Siriako eta Libiako gerrak, inori axola ez zaizkion Mediterraneo itsasoan itotako milaka biziak, pandemia, kapitalismo basatia, ustelkeria eta zerrendara batzen azkena: Palestinan Israel burutzen ari den genozidioa, mundua besoak gurutzatuta begira dagoen bitartean. Horiek dira mende honetan gertatutakoaren adibide batzuk, zertzelada batzuk. Icebergaren punta besterik ez.


Beraz, galdera berriro ere. Ekarri al digu ezer onik mende honek? Garapenaren izenean aurrera goazela diogu, baina ez ote gara karramarroak bezala atzeraka ibiltzen ari, atzerapauso infinituan?

Garai honi informazioaren aroa ere esaten zaio, Interneten zabalkundeak markatuta. Sare sozialen erabilera masiboak elkarrizketa interesgarriak izateko aukerak modu drastikoan murriztu dituela dirudi. Umeekin lasai bazkaltzeko gurasoen teknika berria da euren muturren aurrean mugikorrek bideo koloretsuak jartzea, horiek behin eta berriz erreproduzi ditzaten. Guztia lasaitasunaren izenean. Gaur egun, mugikorrean denerako aplikazio bat daukagu eskuragarri, erosketa zerrenda egiteko, Roomba lanetik kontrolatzeko, hilerokoa jarraitzeko... Bada bat, gainera, igande goizak ziklistaz bete eta mendi lasterketak obsesio berri bihurtu dituena.

Norbere zilborrari begira bizitzea erritu, posturoaren adiktu, estetika ediktu.

Baina ez gaitezen dramatiko jarri, gure dekadentziaren onenean gaude eta.

"Ekarri al digu ezer onik mende honek? Garapenaren izenean aurrera goazela diogu, baina ez ote gara karramarroak bezala atzeraka ibiltzen ari, atzerapauso infinituan?"


Taxi Alain Deba

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MAIEDER Eider Sampayo
hortz klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia	Zarautz
Periodontzia · Endodontzia	Kale Nagusia 9-1
Estetika eta zuriketak	943 13 32 69
Protesiak · Odontopediatria	722 81 56 60
Azido hialuronikoa	dental@maieder.com
Aho-aurregi eta ATM alterazioak	www.maieder.com



**LANBIDE
HEZIKETA**
FORMACIÓN
PROFESIONAL

Ikasketak: Goi mailako
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.
Enpresa duala: GMN.
Lanbide Heziketa



Gure ikasleen bizipenak
Markel Beristain

Nor da Markel?

Markel Beristain Alcorta naiz, Lasturkoa. 19 urte ditut eta, batxilergoa ikasi ondoren, IMHn goi mailako Fabrikazio Mekanikoko Diseinua egin dut; duala GMN enpresan egin dut. Nire zaletasunak motorra eta arrauna dira. Orioko arraun taldearekin estatu mailako txapelketetan parte hartzen dut egun.

Zergatik aukeratu zenuen ikasketa horiek egitea?

Hasiera batean ingeniari bat egitea pentsatu nuen, baina ate irekietara etorritakoan, bertako metodologiak eta berehala lan munduan hasteko aukerak bulzatu ninduten erabaki hau hartzera.

Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?

Azken finean gehienbat gertutasunagatik bada ere, hainbat ezagunen gomendioek eta ate irekietan ikusi eta entzundakoek erakarri ninduten.

Zein da zure iritzia orain arte IMHn eta dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientziari buruz?

Niretzako etorkizunera begira oso lagungarria den ikasketak modu bat da duala. Izan ere, lan mundu errealean ematen diren arazoak eta beste hainbat egoera bidez oso baliagarria da norbere ikasketarako. Gainera, alderdi teknikoetan eta praktikoetan asko ikasi dut egindako ikasketak, lan eta lankideetatik.

Esango al zeniguke zer den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?

Esango nuke hasiera batetik ikaskideekin eginiko taldea eta bertan izan dugun giro sana dela IMHtik gehien gustatu zaidana. Bestalde, irakasleekin izan dudana harremana oso gertukoa eta positiboa izan da.

Zer asmo duzu datorren urterako?

Datorren urtera begira dualean hasitako enpresan lanean jarraitzeko asmoa dut.

Zer esango zenioke zurea moduko zikloa ikasteko zalantzan dagoen pertsona bati?

Zalantzan dagoen pertsonari lehenik eta behin erabaki bat hartu aurretik ondo informatzea eta posible izanez gero ate irekietara joatea gomendatuko nioke, informazio baliagarria ematen dela uste baitut. Bestalde, esango nioke erabakia norberak hartu behar duela, beste inork esandakoari kasu egin gabe. Eta, azkenik, nire kasuan lanbide heziketa oso eramangarria egin zaidala.

**Informazio
Saioak**

Maiatzak 11 · 11:00
Maiatzak 15 · 17:00





AINARA SEDANO

Suntsikeraiketa

Ez naiz batere jakitun hirigintza eta eraikuntzei buruzko legedia kontuetan, ezta hiri-antolamenduan ere, eta idaztera natorren hitz hauek nire iritzia besterik ez dira. Segur aski aditu batek nik ezagutzen ez ditudan azalpenak eman ahalko lizkioko gero eta gehiago arduratzen nauen gai honi, baina zalantza serioak dauzkat balioa ematen ari garen gauzei buruz.

Aurrerakuntzaren aldekotzat dut nire burua, eta kontziente naiz arlo batzuetan garapena lortzeko beste alderdi batzuetan kalteak sortzen ditugula zenbaitetan, baina honen neurriak kezkatuta nauka; ez ote gabiltzan mugak non dauden jakiteko ikuspegia galtzen. Batez ere, ez ote gauden garapenaren izenean naturari, eta aldi berean geure buruari, egiten ari garen kalteen kontzientzia galtzen. Eta kalte horiek ez ote diren itzulezinak.

Badirudi eraikitzen den etxe berri sorta bakoitzarengatik, nik ezagutzen ez dudana proportzio batean, zenbait zuhaitz berri landatu behar direla. Eta nik izendatu ahal izango nituzke zuhaitzak moztu edo kendu diren zenbait toki (bai Deban, bai beste zenbait herri edo hiritan), baina oraindik ez ditut aurkitu eta ez dakit non dauden eraiki diren etxe berriengatik landatu diren zuhaitz berriak; ez dakit lehenago ez zegoen zein parke berri sortu den, belarrez eta zuhaitzez betea, eraikuntza berrien truke.

Gainera, gaur egun eraikitzen diren parke berriak maiz porlanez eginak daude eta... zer esango dizuet ba? Nire planetan, porlanezko paisaiak ez dira inolaz ere arnagune, bertan lau azenario landatzen badituzte ere.

"Zer esango dizuet ba? Nire planetan, porlanezko paisaiak ez dira inolaz ere arnagune, bertan lau azenario landatzen badituzte ere"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

* Fisioterapia - Osteopatia	* Podologia
* Gimnasia hipopresiboak	* Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Udalak iragarri du Amillagakoa itxi eta Artzabalgo hilerri berrirako lekualdaketa egingo duela uda ostean



Amillagako hilerria. ERREDAKZIOA

Debako Udalak jakinarazi du Amillagako hilerria itxi egingo dutela eta bertan lurperatutako pertsonen erraustak Artzabalgo hilerriara eramango dituztela. Eta prozesu hori "uda ostean" egingo dela zehaztu du, "fase honetako prozedimendua amaitzean; hala, erantzuna emango zaio denboran luzatu den prozesuari".

Azaldutakoaren arabera, hain justu, lekualdaketa "ahalik eta modurik errespetuzkoenean eta ordenatuenean" egin nahian, udalak gutunak bidali dizkie Amillagan lurperatutako pertsonen senideei, "eta banakako edo taldeko lekualdaketa bat hautatzeko aukera" eman die. Horretarako, inprimaki berezi bat erantsi da korrespondentzian, eta inprimaki hori hainbat daturekin eta hautatutako lekualdatze aukerekin osatu beharko dute herritarrek.

Aukeratutako formularioa udaletxeko arreta bulegoan edo erregistro elektronikoen bitartez aurkeztu beharko dute, behar bezala sinatuta, gutuna jasotzen denetik hogeigun naturaleko epean. "Senitartekoen aldetik lekualdatzeko lehentasunaren inguruko adierazpen zehatzik jasotzen ez bada, udalak gorpuzkiak lurpetik aterako ditu eta, erraustu ondoren, kolunbario komun batean utziko ditu, tratamendu duina eta errespetuzkoa bermatuz", gaineratu dute.

Prozesuak behar duen "errespetua eta seriotasuna" bermatzeko konpromisoa azaldu du udalak eta, adierazi duenez, "prest dago edozein kontsultari erantzuteko edo familiei beharrezko laguntza emateko".

Ongizate emozionala eta autozainketa lantzeko tailerra egingo da Deban, maiatzaren 10etik ekainaren 19ra bitartean

"Osasun mentalak eta emozionalak gizabanakoengandik ongizatean duen garrantziaz" jabetuta, autozainketa eta ongizate emozionala lantzeko tailerra antolatu du Debako Udalak datozen asteotarako. Ikastaroa Saioa Garmendiak (Astigarraga, 1979) gidatuko du; 25 urteko esperientzia dauka zaintza esparruan, eta aditua da ongizate emozionalean, coach pertsonalean, emozioen kudeaketan, adimen emozionalaren garapenean, eta *mindfulness*-ean.

Maiatzaren 10etik ekainaren 19ra egingo da tailerra, eta doakoa izango da. Bi orduko lau saio izango ditu guztira, eta saio horiek hamabostean behin egingo dira. Maiatzaren 10ean izango da lehen saioa, 22an bigarrena, ekainaren 5ean hirugarrena, eta 19an laugarrena eta azkena. Saio guztiak 18:00etatik 20:00etara egingo dituzte, lehenengo biak Kultur Elkartearen, eta azken biak Ispiluen gelan.



Argi: IHINTZA ELUSTONDO (UKT)

Izen-ematea zabalik dago eta parte hartu nahi duten herritarrek 943 19 28 40 telefono zenbakira deitu edo berdintasuna@deba.eus helbide elektronikora idatzi beharko dute. Plazak mugatuak izango dira eta gehienez ere hamabi laguneko taldea osatuko dutela adierazi dute, partaideei "konfiantzazko giroa eskaini ahal izateko".

EH Bildu nagusitu da Deban eta eskualdean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan

Udalerrian koalizio abertzaleak lortu du boto gehien (1.292) Eusko Legebiltzarrerako bozetan, nabarmen gora eginez 2020koekin alderatuta (1.077 boto izan zituen orduan). Bigarren izan da EAJ-PNV, 1.203 botorekin, kasu honetan apur bat igota duela lau urteko emaitzekin alderatuz gero (1.170 boto izan zituen, lehen indarra izanik). Eta hirugarren alderdia PSE-EE izan da, 200 botorekin; duela lau urte baino 36 boto gehiagorekin, hain justu.

4.331 herritar zeuden botoa ematera deituta udalerrian, eta parte-hartzea %67,84koa izan da.

Ildo beretik, Debabarrenean ere

EH Bildu nagusitu da, EAJ-PNV izan da bigarren indarra, eta PSE-EE hirugarrena. Herriz herriko emaitzei dagokienean, EH Bilduk bailarako sei herritan irabazi du: Mallabian, Eibarren, Soraluzen, Mendaron, Deban eta Mutriku. EAJ-PNVk, berriz, bitan: Ermuan eta Elgoibarren.

EAJ-PNVk irabazi ditu bozak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak EAJ-PNVk irabazi ditu, EH Bildurekin jarlekuetan berdinduta; 27na eserleku eskuratu dituzte, baina jeltzaleak nagusitu dira botoetan (370.554 boto, %35,22).

Koalizio abertzaleak, bere aldetik, emaitza historikoak lortu ditu, lehen aldiz 300.000 botoen langa gaindituta (341.735 boto). Araban eta Gipuzkoan EH Bilduk irabazi du, eta Bizkaian EAJ-PNVk.

PSE-EE izan da hirugarren indarra 149.660 boto eta 12 aulki eskuratuta; PPK 7 eserleku lortu ditu; eta Sumarrek eta Voxek bana. Elkarrekin Podemos Eusko Legebiltzarretik kanpo geratu da.

EAJ-PNVk eta PSE-EEk egungo koalizio gobernuari eutsi ahalko liokete, gehiengo osoarekin, eta horrek Imanol Pradales jeltzalea bihurtuko luke lehendakari.

> Emaitzak • Deba

Alderdia	2020	2024	Dif
 EH BILDU	1.077 %39,71	1.292 %44,22	▲ 215 %19,96
 EAJ	1.170 %43,14	1.203 %41,17	▲ 33 %2,82
 PSE-EE (PSOE)	164 %6,05	200 %6,05	▲ 36 %21,95
 SUMAR	-	57 %1,95	-
 ELKARREKIN	157 %5,79	45 %1,54	▼ -112 %-71,34
 PP	42 %1,55	42 %1,44	=
 VOX	19 %0,70	19 %0,65	=
 PACMA	9 %0,33	9 %0,31	=
 IZAN	-	8 %0,27	-
 PUM+J	2 %0,07	5 %0,17	▲ 3 %150


> Indar politiko bozkatuena herriz herri Debabarrena



labur.eus/a21emaitzak estekan ikus ditzakezue emaitzak herriz herri.



> Eserleku banaketa • EAE





1920ko irailaren 29a

Debako itsasadarretik Ternuara

Indalecio Ojangurenek ateratako argazki honetan *Rio Ego* itsasontzia uretaratu zuten ueña ikus daiteke. Lau mastako pailebot motako ontzi ederra zen, Astilleros del Deva S.A.-k eraikia; ontziola itsasadarraren Mutrikuko aldean zegoen, gero Plasticas Reiner enpresa egon zen lekuan. Gastañaga eta Errasti enpresari eibartarrak ziren ontziaren armadoreak. Ontziak 51,64 m-ko luzera zuen, eta 1921etik 1923ra bitartean kabotaje-bidaiak egin zituen penintsulako hainbat porturen artean. 1923an Frantziako La Morue Française et Sécheries de

Fécamp enpresari saldu zioten, eta *Zazpiakbat* izena hartu zuen. Jatorri-portua Fécamp-en (Normandia Garaian) bazuen ere, belaz eta lurrunez propulsatutako itsasontzia Saint Pierre et Miquelon-en (Ternuan) matrikulatu zuten, eta ordutik bakailao gazia Ternuatik Frantziara arrantzatzen eta garraiatzen aritu zen. Hona hemen datu bitxi bat: bere garaian (1924an), Frantziako komunikabideek munduko arrantza-ontzirik handiena zela esan zuten.

Alex Turrillas Aranzeta



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
 KALITATEA
 Enpresa Registrada Nº 21105/1049
 NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

Zabalik dago Kolorez Blai udaleku irekietan izena emateko epea



Bueltan datoz Debako Udalak eta Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak elkarlanean antolatutako Kolorez Blai euskal udaleku irekiak, HH5etik LH6ra bitarteko hurrei zuzenduta. Maiatzaren 10ean bukatuko da izen-ematea.

Udalekuak uztailearen 1etik 26ra bitartean egingo dira, bi txandatan banatuta: uztailearen 1etik 12ra izango da lehenengoa (HH5, LH1

eta LH2 mailetako haurrentzat), eta uztailearen 15etik 26ra bigarrena (LH3tik LH6ra bitarteko ikasleentzat). Aisialdiko jarduerak astelehenetik ostiralera egingo dira, 09:30etik 13:00etara; uztailearen 25ean ez da udalekurik izango, eta hilaren 26an 09:30etik 16:30era artekoa izango da eskaintza.

Internet bidez edo aurrez aurre

Internet bidezko izen-emateazabalik dago (berriketan.eus/udalekuak estekan). Aurrez aurre egin nahi dutenek Zuhatza elkartearen bulegorajobeharko dute maiatzaren 2an, 3an eta 10ean goizez (09:30-12:00), edo hilaren 6an, 7an, 8an eta 9an arratsaldez (15:30-18:00).

Deban maiatzaren 15ean banatuko dituzte Errigoraren produktuak

Martxoaren 13an amaitu zen Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuak eskatzeko epea eta Errigorako kideak gustura agertu dira emaitzarekin. "Gero eta gehiago gara. Elikadura burujabetzara bidean goaz", adierazi dute. Guztira 10.000 eskaera inguru izan dituzte aurten; iazko datuak hobetuz, 127.000 litro olio eta 26.000 lote inguru banatuko dituzte.

Deban eta Itziarren 52 eskaera egin dira, produktuen truke 12.137 euroko ekarpena eginez herri ekimenari. Zuhatza elkartearen laguntzaz, banaketa maiatzaren 15ean egingo da, Aldats pilotalekuan (11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara).

Aurten ere errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin dute

Herritarrak errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina jarri dute martxan aurten ere UEMAK eta Debako Udalak elkarlanean. Gainera, kanpaina hau Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako *Ogasunarekin euskaraz!* kanpainaren bidelagun eta osagarri izango da oraingoan.

Errenta euskaraz egiten duten herritarren kopurua urtez urte gorantz doan arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dagoela dio UEMAK. Deban, adibidez, iaz (2022ko ekitaldikoak) egin ziren 3.043 errenta aitortpenetatik ia heren bat (894) egin ziren euskaraz.

Bada, horretan eragin nahi dute erakundeek, administrazioarekin ere euskaraz aritzen diren herritarren kopurua handitzen, hain zuzen.

Hiru bide

Errenta aitortpena uztailearen 1era bitartean egin ahal izango da Gipuzkoan. Aitortpena aurkezteko hiru bide daude eta guztietan erabil daiteke euskara: autolikidazio proposamena, mekanizatua eta Internet bidezkoa.

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



A. Esnaola P. Echeverria

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ez. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

Sindika baserriaren ingurua "zabortegi" bihurtzen ari dela salatu dute jabeek



Lasturrera igotzeko bidegurutzearen inguruko lursaila "zabortegi" bihurtzen ari dela salatu dute Sindika baserriko Angel Usobiagak eta Tomas Salegik. Sasi asko dago inguruan eta, eremua "ezkutuan" geratzen dela aipatzen, jendea zaborra botatzera "ohitzen" ari dela ohartarazi dute. Arazoa "aspaldiko kontua" izan arren, azkenaldian areagotu egin dela adierazi dute. "Lehen, noizean behin, potoren bat edo poltsaren bat agertzen zen, baina orain gero eta zabor gehiago dago".

Lursailaren jabeek egoerak sortzen dien kezka plazaratu diote *Berriketan*-i, eta eskaera argia egin dute. "Lursailaren nagusiak izanda, egoeraren berri eman nahi dugu, bide batez, hau ez dela zabortegi bat gogoraraziz". Diotenez, askotariko zaborra pilatzen da bertan eta, ahal duten guztietan ingurua txukuntzen saiatzen badira ere, kexu dira zakarrak nonahi agertzen direlako. "Bertaratu orduko ikus daitezke

jendearen utzikeriaren ondorioak; lata eta supermerkatuetako poltsa ugari daude edonola botata". Halaber, obretako hondakin eta material ugari azaltzen direla ere aipatu dute. "Ettxeren batean lanak egin eta nora botatzen dituzten hondakinak? Bada, hona etortzen dira! Duela gutxi, adibidez, txatartegirako bidean dagoen zubi zaharraren inguruetan obrako materialez betetako hogeitatu bat zaku agertu ziren. Txatartegiko langilea zakuak baztertzeko ibili behar izan zen, pasatzeko leku nahikorik ez zuelako".

Neurri berriak

Oraingoz erantzuleak nortzuk diren ez dakite, baina egoera saihesteko neurriak hartuko dituztela iragarri dute. "Guztia garbitu ondoren, hesitu egingo dugu, eta jendea kontzientziatzeko kartel bat jarriko dugu, gunea ez dela zabortegi bat ohartarazteko. Ea neurri horrekin jendeak zerbait errespetatzen duen".

Kutzazain automatiko berria estreintatu dute Itziarren

Itziaroko Auzo Udaletik egindako eskaera aintzat hartu ondoren, Kalebarrenean orain arte egon den kutxazain automatikoaren ordez "zerbitzu hobea eta irisgarriagoa" eskaintzen duen beste kutxazain bat jarri berri du Kutxabankek; apirilko bigarren astean jarri zuten ukipen-pantailadun kutxazain berria.

Auzo udaleko iturriek azaldu dutenez, lehen zegoena "oso zaharkituta" zegoen. "Azken zortzi urteetan hainbat matxura izan ditu. Itziarren ez dago sukurtsalik eta kutxazain hori da herrian bertan dirua ateratzeko aukerarik gabea". Gaineratu dutenez, zerbitzua hainbat aldiz dirurik gabe ere geratu izan da, bizilagunak inguruko herrietara joatera behartuz.

Auzo udaleko ordezkarien iritziz, herritarrei ez ezik, industrialdera datozenei edo bertatik igarotzen diren erromesei ere egingo die mesede zerbitzu berriak.



Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA
Telf.: 943 55 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

marruecos
viajes y tours

Neurrira egindako
bidaia Marokora
607 76 11 46
www.viajesytoursmarruecos.com

Arbilen ekimenez, herritarrek ekintzaz betetako beste hilabete batez gozatzeko aukera izan dute



Apirilean egindako hitzorduetan ateratako argazkiak. ARBILEKARTE SOZIALA

Arbil Elkarte Sozialaren apirileko egitarauarekin bat egin dutenek askotariko ekintzez gozatzeko aukera izan dute azken asteotan. Hilaren 11n, adibidez, jarduera fisikoa sustatzea helburu duen irteera egin zuten eta, eguraldi ona lagun, 31 lagunek parte hartu zuten Saturraran eta Berriatua batzen dituen 8,5 kilometroko ibilaldian.

Apirilaren 17an, berriz, minbiziari buruzko mahai-ingurua egin zuten, Eibarko AECC elkarteko Garazi Rodriguezek, Laura Mongelosek eta Ainhoa Oregik gidatuta. Debako

osasun etxeko Alfredo Tapia mediku ohia ere bertan zela, partaideek gai askori buruz hitz egiteko aukera izan zuten: besteak beste, minbizia prebenitzeko gakoez aritu ziren eta, familiako norbaiti minbizia diagnostikatuz gero, egoera hori nola kudeatu ere aztertu zuten.

Nagusilan zer den eta elkarte horretan nola lan egiten duten azaltzeko hitzaldia ere egin berri dute hilaren 23an. Eta, bestalde, Kantabria aldean ere ibili dira; hilaren 25ean Cartes, Riocorvo eta Torrelavegara egindako irteerak

"harrera arrakastatsua" izan duela aipatu dute.

Galiziarra bidaia

Maiatzerako aurreikusitako dituzten ekintzen artean, hilaren 12tik 17ra Galiziako Ribeira Sacra egingo duten bidaia nabarmendu dute antolatzaileek.


Debako hondartza eta flyscha ezagutzeko irteera (hilaren 16an), *Filosofia. Norbera ezagutzeko bidea* hitzaldia (hilaren 23an) eta Azpeitiatik Iraetara arteko ibilaldia ere (hilaren 30ean) izango dira aukeran.



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Jendetza eta giro ederra Ibai Ondoko Hagin Okerrak taldearen zuzenekoan



Harrera beroa egin zitzaion taldeak joan den apirilaren 5ean eskainitako emanaldiari. Gau giro epela aprobetxatuz, herritar ugari hurbildu ziren Ondargain tabernara, herriko musikarien kontzertuaz gozatzera eta, zuzeneko saioaren ondoren, rock-and-roll *binilo pintxada* ere egin zuten.

2019ko udan Jazzez Blai jaialdiaren baitan Debako Gaztetxean egin zen blues ikastaro baten ondorioa da Ibai Ondoko Hagin Okerren proiektua eta, gaur egun, Borja Malabek (ahotsak eta baxua), Martin Loresek (ahotsak eta armonika), Xabi Loresek



(gitarra) eta Samuel Eliasek (bateria) osatzen dute Debarock Kolektiboaren baitan sortutako laukotea.

Hainbat hilabetez elkarrekin entseatzeko eta abestiak sortzeko eta grabatzeko aritu ondoren, esku artean daukaten proiektuaren lagin txiki bat aurkeztu zuten Ondargaineko zuzenekoan. Era berean, "musikaz ikastea, baina batez ere ondo pasatzea" helburu duen lagun taldea hasia da bere lana Internet bidez ere zabaltzen. Abestiak ez ezik, bideo klipak ere ikusgai daude, esate baterako, laukotearen Youtubeko kanalean.

Debako eta Itziarko lau ordezkari Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasean

Apirilaren 25ean hasten da Gipuzkoa Bertsotan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea, eta ekainaren 2ra artean 20 saio izango dira, bi itzulitan. 74 bertsolari ariko dira kantuan, eta horietatik 48 sailkatuko dira bigarren itzulirako; udazkenerako herrialdeko txapelketarako txartela, aldiz, 34 bertsolarik lortuko dute.

Debako eta Itziarko lau bertsolari daude sailkapen fasean lehiatuko direnen artean: Antton Aizpurua, Manex Astigarraga, Aitor Zubikarai eta Ander Zulaika.

Apirilaren 26an Gabirian ariko da kantuan Aitor Zubikarai. Maiatzaren 2an Zaldibian jardungo dute Antton Aizpurua eta Ander Zulaikak. Eta, maiatzaren 10ean, berriz, Manex Astigarragaren txanda izango da, Mutrikun.

Saioetarako sarrerak salgai daude dagoeneko eta informazio guztia Bertsozale Elkartearen sare sozialetan eta web orrian (bertsozale.eus) egongo da ikusgai.

Maiatzaren 1ean amaituko da Animadeba jaialdira film laburrak bidaltzeko epea

Irailaren 4tik 7ra egingo da Animadeba Nazioarteko Zinema Jaialdiaren 17. edizioa eta abiatu dituzte jadanik prestaketa lanak.

Maiatzaren 1ean amaituko da animaziozko film laburrak inskribatzeko deialdia; lan horiek Sail Nagusian, Zinemagile Berriak Sailean eta Panorama Sailean lehiatuko dira gero. FilmFreeway

plataformaren bitartez eman behar da izena (animadeba.com web orrian ikus daitezke oinarriak).

"Erreferentziazko jaialdi" gisa hazten eta sendotzen segi nahi du Animadebak, "zinemagileen, animazioaren industriaren eta ikusleentzako topagune bihurtuz". Aurtengo hitzordua "berrikuntzekin eta indartsuago" datorrela iragarri dute.



Kultur Elkarteak Bazkidearen Eguna egingo du maiatzaren 11n

Bazkideen babesa eta ekarpena eskertu nahian, Debako Kultur Elkarteak haien omenezko egitarau berezia prestatu du maiatzaren 11rako. Bazkidearen Eguna ospatuko dute lehen aldiz.

Egunari hasiera emateko, Ostolaza Saria banatuko dituzte 12:00etan. Udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren edo erakundeen lana aitortzea eta aintzatestea da sari horien helburua, eta lau sari banatuko ditu kultur eragile ezberdinek osatuko duten epaimahaiak (*Sortzaileak*, *Dinamikak*, *Ezinbestekoak* eta *Hazia Saria*). Herritarrek proposatu dituzte hautagaiak.

"Pozik eta esker onez gaude deialdiak herrian izan duen erantzunarekin. 91 lagunek parte hartu dute egitasmoan, eta 44 hautagai proposatu dituzte guztira. Bazkidearen Egunean jakinaraziko da epaimahaikideen ebazpena", azaldu dute elkarteko kideek.

Bazkideen bazkariak (14:30ean), Andoni Agirregomezkortaren



Un vasco de la hostia umorezko ikuskizunak (17:30ean) eta Skabidean taldearen kontzertu akustikoak (20:30ean) osatuko dute egitaraua. Edukiera mugatua izanik, gonbidapenak aurrez hartu behar dira. Eta sarrerak lortzeko ezinbestekoa da elkarteko bazkide izatea; ikuskizunak doan izango dituzte, eta bazkaria bost euroan.

270 bazkide

Kultur Elkarteak bazkide kanpaina abiatu du hilabeteotan (270 kide ditu gaur egun); urtean 12 euroko ekarpena egin behar da. Bazkideza Internet bidez egin daiteke, *labur.eus/kulturelkartea* estekan.

Maiatzaren 4an izango da Donostiatik Itziarrera egin ohi den Gau Ibilaldia



Itziar, berri ona! lelopean, maiatzaren 4an egingo dute izaera katolikoa duen 70. Gau Ibilaldia. 20:00etan Donostiako Ondarreta hondartza paretik aterako da 42 kilometroko martxa eta Igeldotik, Oriotik, Zarauztik, Getariatik eta Zumaiatik igaro ondoren, hurrengo eguneko 06:30ak inguruan iritsiko dira ibiltariak Itziarrera. Jarraian, elizkizuna izango da santutegian, Fernando Prado Gipuzkoako gotzaina buru dela.

Bidean, ohi bezala, geldialdiak ere egingo dituzte, eta erritmoari jarraitu ezinik dabilentzat doako autobus zerbitzua ere egongo dela jakitera eman dute. "Autobus hori Zumaian hartu ahal izango da, 04:30ak inguruan".

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarau berezia antolatu dute apirilean

Apirilaren 23an ospatu ohi da Liburuaren Eguna, eta egun horretan bertan eman zitzairen hasiera aurtengo kultur jarduerari.

Ikasleei zuzendutako IV. Ipuin eta Ilustrazio lehiaketaren sariak banatu zituzten goizean, eta *Deba ehun hitzetan* lehiaketari dagozkionak, berriz, arratsaldean. Iñigo Legorburu nagusitu da bi

modalitateetan, euskarazkoan eta gaztelaniazkoan, *Tenoreak* eta *Aperturas y... klabadak!* izenburuko idazlanekin, hurrenez hurren.

Euskarazko bigarren saria Gotzon Plazak jaso du, *Arima* lanari esker, eta Iñaki Prietok lortu du saritu gabeko herriko lanik onenari ematen zaion saria, *Hitzordua Caronterekin* idazlanarekin. Gaztelaniazko

modalitatean, aldiz, Rafael Bravoren *Aun estamos a tiempo* lanari eman diote bigarren saria, eta Bravok lortu du saritu gabeko herriko lanik onenari egiten zaion aitortza ere, *Arras de plomo* lanarekin.

Hilaren 27an, goizez, mikro irekia, liburu azoka eta bermut literarioa egingo dute Kultur Elkartean, baita Xabier Badiolaren kontzertua ere; eta 28an, *Mareak* ikuskizuna izango da Ispiluen gelan, 19:00etan. Egitaraua apirilaren 30ean amaituko da, Irakurketa Klubaren saioarekin.

“Baso bete zientzia’ bezalako jardunaldiak beharrezkoak dira zientzia kultura orokorraren parte dela erakusteko”

JON LAFUENTE ETA MADDI ASTIGARRAGA • *Baso bete zientzia*



"Herriko jendeak zientzia munduan egiten duen lana ezagutaraziz, Deban ere zientziarekiko interesa piztea". Horra hor, laburbilduta, Kultur Elkarteak maiatzera begira dakarren proposamen berritzailearen helburu nagusia. *Baso bete zientzia* goiburupean, hilabeteko lau ostegunetan publiko orokorrari zuzendutako hitzaldi laburrak emango dituzte zientzialari debarrek, euskaraz (pintxo-potea ere eskainiko da hitzorduetan). Bederatzi solasaldi izango dira guztira, eta beste hainbeste protagonista.

Ideia aspaldikoa izan arren, duela hilabete batzuk hasi ziren *Baso bete zientzia* proiektua "serioago" gorpuzten, eta oraintsu aurkeztu dute estreinako antolatutako jardunaldien egitaraua. Bederatzi hitzaldi egingo dira maiatzean, zientzia-dibulgazioa eta pintxo-potea uztartuz. Ostegun bakoitzean, herriko zientzialariak izango dira protagonista, eta ezagun duten lan edo ikasketa arloarekin lotutako gaiak ariko dira. Antolakuntza lanetan diharduten lauzpabost lagun artean daude Maddi Astigarraga ilustratzaile zientifikoa eta Jon Lafuente Fisikan doktorea.

Nolatan sortu zen ekimena martxan jartzeko ideia?

Maddi Astigarraga: Zientziaren munduan lan egiten dugun edota arlo honekiko interesa dugun lagun talde bat bildu eta Deban halako zerbait antolatzeko ideiarri bueltak ematen hasi ginen. Ondoren, afari batean proiektuari forma ematen hasi, eta ekimena aurrera ateratzeko bileretan eta lanetan murgildu ginen.

Ondarroan, adibidez, Pint of Science nazioarteko jaialdiaren saioak antolatzen dituzte. Loturirik ba al dute bi egitasmoek? Zuetako batzuek zuzenean parte


hartu izan duzue hizlari gisa hango saioetan, ezta?

M.A.: Bai, noski! Pint of Science jaialdian zientzia-hitzaldiak unibertitate eta ikerketa zentroetatik atera eta tabernetara eramaten dira, eta ikerlariak eta zientzialariak beren lana azaldu eta publikoaren galderak erantzun ditzakete, giro erlaxatu eta gertukoan. Guk ere halako zerbait egin nahi izan dugu: herriko zientzialariei hitza eman, zientzia arloko hainbat gai jorrazteko. Nire kasuan, Ondarroako eta Donostiako ekimenean parte hartu nuen iaz eta oso gustura egon nintzen, jende anitza biltzen baita bertan, dibulgaziorako giro paregabea sortuta. Ea Deban ere halako giroa sortzen dugun.

Zientzia kontzeptu zabala da... zer gai landuko dituzue? Zein izango da hitzaldien formatua?

M.A.: Denetarik egongo da. Bakoitzak bere lan edo ikasketekin lotutako gaiak jorrazteko dituzte, arlo ezberdinen baitan: fisika, informatika, kimika, ingeniariaritz, neurologia, farmakologia eta, nire kasuan, zientziaren dibulgazioa ilustrazio zientifikoren bidez.

Jon Lafuente: Hitzaldi laburrak izango dira, hogeitabat minutukoak. Egun bakoitzean bi edo hiru hizlari egongo dira eta, hitzaldien ondoren, galderak egiteko



Egitaraua egunez egun:
labur.eus/bbzeitaraua



Antolakuntza lanetan ez ezik, hitzaldietan ere zuzenean parte hartuko dute Jon Lafuentek eta Maddi Astigarragak. ERREDAKZIOA

eta eztabaidatzeko denbora egongo da. Saioen arteko pintxo-poteak lagunduko du giroa erlaxatzen.

Publiko orokorrari zuzendutako solasaldiak izango direla diozue. Gaiari buruzko jakintza edo ezagutza maila zehatzik behar al da bertaratu ahal izateko?

J.L.: Helburua zientziaren dibulgazioa egitea da eta, beraz, arlo ezberdinen ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara; zehaztasun zientifikoa alde batera utzi gabe, baina ahalik eta xehetasun tekniko gutxien erabiliz. Ez da inolako ezagutzarik izan behar edukiak ulertzeko, eta hor dago gakoa. Hitzaldi entretenigarriak prestatuko ditugu.

Euskaraz ariko zarete jardunaldi guztietan.

M.A.: Zientziaren hizkuntza ingelesa dela uste du jendeak; ingelesa da, antza, punta-puntako zientzia egin eta komunikatzeko hizkuntza. Komunikazio proiektu eta hedabide ezberdinek, ordea, argi utzi dute euskaraz ere hitz egin daitekeela zientziaz. Eta guk ere mito hori hautsiko dugu, eta herriko zientzialariok herritarrekin gure hizkuntzan, euskaraz, hitz egingo dugu zientziaz.

Zaila izan al da hizlariak topatzea?

J.L.: Ez da batere zaila izan. Eta hori izan zen jardunaldi hauek antolatzeke motibazio nagusietako bat.

“Gure inguruan puntako zientzia egiten duen jende asko ezagutzen genuela konturatu ginen. Debaren tamainako herri batentzat, harrigarria da kopurua”

Gure inguruan puntako zientzia egiten duen jende asko ezagutzen genuela konturatu ginen. Debaren tamainako herri batentzat, harrigarria da kopurua; batez bestekoaren gainetik gaudela esango nuke, nahiz eta hori frogatu egin beharko genukeen...

Batek baino gehiagok sorpresa har dezake, agian, zuetako batzuk zientzialariak zaretela jakitean...

M.A.: posible da, bai. Nahiko ezkutuan dago ogibidea eta, horrelako ekimenetan ez bada, zaila izaten da zientzialarien lana ezagutaraztea, baita zientziaren arlo ezberdinetan ikerketan buru-belarri diharduten ikerlariak ezagutzea ere. Horregatik, mota honetako



“Komunikazio proiektu eta hedabide ezberdinek argi utzi dute euskaraz ere hitz egin daitekeela zientziaz”

“Beharrezkoa da ikerketen emaitzak ez ezik, zientzia jarduna bera ere ezagutaraztea ”

dibulgazio proiektuek berebiziko garrantzia dute gure lana laborategietatik atera eta hura ezagutzera emateko. **Aipatzen duzuen norabide horretan, egin egiten dira jarduerak, baina oraindik ere zientziak ez du tarte edo oihartzun handirik izaten hedabideetan. Gurean halako ekimenak antolatzea ere ez da oso ohikoa, ezta?**

J.L.: Batzuetan zientziak merezi ez dituen konnotazio batzuk daramatza gizartean: ulertzeko zaila da, oso tekniko, eta aspergarria. *Baso bete zientzia* bezalako jardunaldiak beharrezkoak dira zientzia kultura orokorraren parte dela erakusteko eta, abesti on bat entzutean gertatu daitekeen bezala, kontzeptu zientifikoak ulertzean ere edozeinentzako gozamina izan daitekeela ikusteko.

M.A.: Nire ustez, gaiarekiko interes urria duten pertsonengana iristea da zientzia-komunikazioak duen zailtasun handienetarikoa bat. Azken finean, gero eta informazio gehiago jasotzen dugu Internet bidez, mugikorrean, aldizkarietan... eta gizartean kultura zientifikoak hedatu ezean, aise sinetsi eta zabaltzen ditugu gezur horiek guztiak. Gizartean zientziaren fidagarritasuna edo sinesgarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da ikerketen emaitzak ez ezik, zientzia jarduna bera ere ezagutaraztea. Eta horixe da *Baso bete zientzia*-ren balioa, egunerokotasunean ikerketan

dabiltzan pertsonak zuzenean entzuteko eta beren ogibidea gertuagotik ezagutzeko aukera ematen baitu. **Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin bat eginez, 'Otsailaren 11 erakuslehoak' egitasmoa egiten da Euskal Herrian, tarteetan Deban ere. Iaz, hamabi emakume zientzialari omenduen artean egon zinen zu zeu, Maddi. Nola hartu zenuen albistea?**

M.A.: Pozgarria izan zen, baina, batez ere, jendearen eta eskolako haurren inplikazioa izan zen pozgarria. Egitasmo horren baitan, erakuslehoetan zientzialari baten irudia jartzen da, bezeroen artean emakume zientzialari horri buruzko solasaldiak sortuz eta zientziarekiko jakinmina sustatuz. Nire kasuan, Luzaro ikastetxera ere egin nuen bisita ekimenaren harira. Eta bisita horri eta erakuslehoetan jarritako informazioari esker, nire lan jardunari buruzko informazioa emateko aukera izan nuen. Batek baino gehiagok hala ezagutu zuen nire ogibidea. Horrelako proposamenak oso baliagarriak dira zientzia gaiak eguneroko solasaldietan txertatzeko. **Maiatzeko hizlarietako asko ikerketa arloan zabilzate. Zer garrantzi dauka zuen lana ere jendarteratzeak?**

J.L.: Berebizikoa dela iruditzen zait. Hasteko, garapen zientifikorako finantziario iturri nagusienetako bat erakunde publikoak dira. Jendeak jakin beharko luke zientzian egiten den inbertsioak zertarako balio duen,



Mattin Urbiet, Eider Aldalur, Maddi Astigarraga eta Jon Lafuente antolatzaile eta hizlariak Kultur Elkartearen. ERREDAKZIOA

zer emaitza lortzen diren, eta zer onura ekartzen dituen gizartean. Bestalde, teknologiaz inguratuta bizi gara gaur egun, eta gobernuetan hartzen diren erabaki asko zientziarekin erlazionatuta daude. Adibide garbiak dira aldaketa klimatikoa edota duela gutxi bizi genuen pandemia. Gizarteari erremintak eman behar zaizkio hau guztia ulertzeko, eta iritzi osoago bat izateko.

Egitasmo honekin, publiko orokorarentzat ulertzeko konplexuak diren gaiak ulergarri egitea da zuen asmoa. Zeintzuk dira hori lortzeko gakoak?

J.L.: Ez da batere erraza dibulgazio zientifiko ona egitea. Xehetasun teknikoaren eta ulergarritasunaren artean oreka bilatu behar da, baina betiere zehaztasun zientifikoa mantenduz. Kontzeptuak ahalik eta gehien sinplifikatu behar dira, baina ez gehiegi. Konplexuak den zerbait era efektiboan komunikatzeko, ulermen sakona beharrezkoa da, eta hor dago gure lana. Hori lortzea espero dugu.

Topiko asko dago: zientzia ulertzen zaila dela, astuna dela... Nola piztuko duzue herritarren interesa?

M.A.: Norberak bere gustuak ditu eta ulergarria eta logikoa da zientziaren inguruan interes eta iritzi ezberdinak izatea. Dena dela, zientzia-dibulgatzaileen lana izaten da hori modu erakargarrian aurkeztea. Kontuan izan dugu hori, bai, eta horregatik eman

diogu garrantzia ekimenean parte hartuko dugunok bertakoak izateari, herritarren interesa piztu eta bertaratzerara animatu daitezen. Gainera, solasaldi laburrak eta entretenigarriak prestatu ditugu, pintxo bat dastatu eta pote bat hartu bitartean disfrutatzeko.

Ariketa zaila al da zuentzat halako hitzaldi bat zuen herrian bertan ematea?

J.L.: Egia esan, niretzat behintzat, dibulgazio hitzaldi bat ematen dudan lehenengo aldia izango da. Bitxia da, baina munduan barrena kongresu zientifikoetan nire eremuko puntako zientzialariak entzule bezala izan ditudan arren, nahiko urduri nago nire kuadrillaren aurrean hitzaldi bat emateko.

Zer lortu behar du hitzaldi sortak arrakastatsua izateko?

M.A.: Zaila izaten da zenbaitetan zientzia herritarrengana gerturatzea. Ekimen honek horixe lortu nahi du, zientzia ardatz izango duen espazio bat partekatzea jakin-mina duen jendearen artean. Arrakastatsua izateko beharrezkoa da gerturatzen direnak, izan bost ala izan 50, gustura sentitzea eta zerbait berria ikasita joatea.

Jarraipenik izango al du egitasmoak aurrerantzean?

J.L.: Espero dugu hala izatea. Izan ere, badauzkagu buruan beste hainbat hautagai hizlari bezala proposatzeko. Politia izango litzateke datozen urteetan jardunaldiak jarraipena ematea eta *Baso bete zientzia* tradizio bihurtzea.

100 bat gazte batu dira Gaztelekuak antolatutako udaberriko oporraldira

Debako Gaztelekuaren ekimenez, herriko gaztetxoek askotariko ekintzak egin dituzte aurten ere Aste Santuko oporraldiko egitarauaren baitan. Hezitzaileek nabarmendu bezala, hain zuzen, "plan paregabeak" izan dituzte aukeran, eta "oso ongi" joan dira jarduerak. Guztira, 100 bat gazte animatu dira ekintzetan parte hartzera. Laburbildu dutenez, irteera batzuk adinaren arabera banatu dituzte, eta beste batzuk, aldiz, gazte guztiei zuzenduta egon dira. Besteak beste, egun-pasa joan dira Donostiara (*hi-selfie* saioa egin, pizzak jan...), Gaztefutbol txapelketan parte hartu dute, Lasergunean ibili dira goiz-pasa eta Askizun ere izan dira bi eguneko bi txangotan. Eguraldia lagun, itsasoan bainua hartzera animatu denik ere izan da.





“Sekulako poza ematen digu auzoan bertan dugun altxor paregabe honetaz denok gozatu ahal izateak”

MAITANE BERISTAIN • Lasturko errotetako bisita gidaria



Gaur egun, oso errota gutxi mantentzen dira zutik eta are gutxiago dira oraindik ere funtzionamenduan daudenak. Gipuzkoan martxan jarraitzen duten instalazio hidraulikoetako bi Lasturko San Nikolas auzoaren bihotzean daude. Maitane Beristain (Lastur, 1980) da ondarearen ikuspegitik "erlikia" diren Plazaolako erroten "sekretuak" ezagutarazteaz arduratzen den pertsonetako bat; hogeitau urte daramatza zeregin horretan.

Beristainen iritziz, "auzoaren nortasunaren parte" dira Plazaolako errota ere. "Lasturtarra naizen aldetik, beti maite izan ditut", azpimarratu du harrotasunez. Plazaolakoak, beste asko bezala, aurreko mendeko 60. hamarkada inguruan sartu ziren gainbeheran, baina auzotarrek eta eraikinaren jabe berriak egindako ahaleginari esker, duela 35 bat urte berreskuratu zituzten. Ordutik, eta Gaztañaga errekaostaren uraren indarrari esker, arto-irina ehotzeko gaitasuna du instalazioak.

Kontaguzu, Maitane, noizkoa den Plazaolako errota hauei buruzko lehen aipamen historikoa.

Alfonso XI. Espainiako erregeak Burdinolen Forua deritzona eman zuen 1335. urtean; hortxe dugu Lasturko Plazaola izenarekin gure burdinolei buruz agertzen den lehen aipamen historikoa.

Eta ba al dakizue nork eraiki zituen edo nork eman zuen eraikitze agindua?

Egia esan, ez dakigu nork egin zituen Lasturko Plazaola eraikitze lanak, baina hau ere Itziar eta Deba sortu zituzten jauntxoek beren jabetzetan industriari begira

agindutako lanetako bat izango zela pentsatzen dugu. Gaiari buruz gutxi dakigun arren, hasiera batean Lasturko burdinolak Debako Irarrazabaltarrenak izango zirela uste dugu, nahiz eta gerora aldatzen joan horien gaineko eskumena zuten jauntxoak.

Ziurrenik, instalazio hauei buruzko beste hainbat datu eta lekukotza jasotzeko aukera ere izango zenuten urteotan. Ba al dago bereziki deigarria iruditzen zaituen daturik?

Historialarien zein bertakoen aipamen asko jaso ditugu; izan ere, errota gure tradizioari eta kulturari atxikitako tresnak izan dira. Datu historiko ugari topatu eta bildu ditugu eta, aldi berean, errotariarekin egindako tratuen edo estraperlo garaiko istorioen berri ere izan dugu. Besteak beste, astoarekin irin zakuak kargatzerakoan etxera bidean izandako abenturen berri eman digute.

Plazaolakoak errota bezala ezagutzen ditugu gaur egun. Zer zerikusi dute burdina lantzeko eta ekoizteko erabiltzen hasi ziren lehen eraikin haiek oraingoekin? Orain ezagutzen ditugun errota asko aspaldiko burdinola hidraulikoen ondorengoak dira.



Jose Luis Garmendia errotaria eta Maitane Beristain arto-irina bahetzen. ERREDAKZIOA

Burdinoletako ekoizpena oso mugatua zen eta XVI. mende bukaera inguruan labe garaiak eraikitzen hasi zirenean, minerala lantzeko eta ekoizteko lantegi txiki horiek zaharkituta geratu zirenez, ibaietako eta erreketako uraren indarrak ekoizten zen energia hori guztia errotetan lan egiteko baliatzen hasi ziren. Lasturren ere bai.

Inguruotan, adibidez, zer nolako garrantzia izan zuen errotagintzak?

Ura zegoen herri guztietan zeuden errotak; kasu askotan, bat baino gehiago zeuden. Lasturren, Ugarte Zaharretik hasi eta plazara bitartean halako zazpi eraikin omen zeuden. Aipatutako instalazio hidrauliko horietako gehienen arrastoak galduta daude, baina Goikola baserriaren sailetan, erreka ondoan, errota izandakoaren arrastoak atzeman dituzte.

Behin errota bihurtuta, zein izan zen Plazalako erroten eginkizun nagusia?

Lasturko bi instalazio hidrauliko hauen zeregin nagusia zereala ehotzea izan da. Goiko errotan, harri bakarria dagoenez, artoa bakarrik ehotzen zen. Behekoak, berriz, bi harri ditu eta artoa ez ezik, garia ere ehotzen

“Ura zegoen herri guztietan zeuden errotak; kasu askotan, bat baino gehiago zeuden. Lasturren, Ugarte Zaharretik hasi eta plazara bitartean halako zazpi eraikin omen zeuden”

zuten bertan. Gaur egun, horietako bat erabiltzen dugu gehienbat eta bertan arto-irina bakarrik ekoizten da. **Non edo zertarako erabiltzen zen bertan ekoizten zen irina, Maitane?**

Esan genezake inguruko baserrietan kontsumitzeko izaten zela; garai haietan, auzotarrek inguruan zituzten errotak erabiltzen zituzten elikagaia lortzeko. Garia ere lantzen zen inguru hauetan, baina artoa, babarrunarekin batera, urte askoan bertoko baserriarren oinarritzko elikagaia izan zen. Beraz, inguruko errotek funtzio oso garrantzitsua betetzen zutela nabarmendu genezake.



“Larrañagatarrek kudeatu zituzten bertoko errotak itxierara arte; izan ere, tabernaren jabetzak berekin zekarren erroten ardura ere hartzea”

“Auzoko mugimendu eta indar desberdinak batu ondoren, gure nortasunaren parte diren errotak berriz ere martxan jartzea lortu zen”

Antzeko instalazio batzuek berezitasunak izaten dituzte. Hauek ere bai?

Bai, noski! Bitxikeria gisa aipatu dezakegu beheko errotaren harrietako bat ez duela energia hidraulikoak mugiarazten.

Eta zer energia mota erabiltzen da horretarako?

Garia ehotzen duen errotarria argindarrarekin jartzen zen martxan; artoa txikitzen duena, berriz, urarekin.

Plazaolako bi errota hauek beti egon dira martxan, edo itxita egon dira noizbait?

Lasturko errotak aurreko mendeko 60. hamarkada inguruan sartu ziren gainbeheran; baserrietan arto- eta gari-irina egiteari utzi zioten eta, ondorioz, errotak ere ixten hasi ziren. Larrañagatarrek (*Palo* familiakoek) kudeatu zituzten bertoko errotak itxierara arte; izan ere, tabernaren jabetzak berekin zekarren erroten ardura ere hartzea.

Eta, itxi ondoren, noiz berreskuratu zenituzten?

Orain dela 35 urte inguru, auzoan mugimendu berezi bat sortu zen: Izarraitz Bizirik elkartea. Horrekin batera, garai beretsuetan, Lasturko taberna eta errotak ere jabe berriak izatera igaro ziren. Eta auzoko mugimendu eta indar desberdinak batu ondoren, gure nortasunaren parte diren errotak berriz ere martxan jartzea lortu zen.

Euskal Herrian, gutxi dira zutik jarraitzen duten errotak, eta are gutxiago martxan daudenak. Zer garrantzi du zuentzat auzokoak funtzionatzen jarraitzeak?

Herritar askoren artean gauzatu den egitasmo honek poz handia ematen digu, eta harro gaude. Gure tradizioaren, bizimoduaren, kulturaren, ohituren... parte izan dira garai batean industriari begira sortutako errota horiek, eta beren inguruan ibili edo hezi garenoi are poz handiagoa ematen digu halako altxor bat martxan ikusi ahal izateak.

Zoritxarrez, errota asko desagertzeko zorian egon dira. Zuentzat hain baliotsua den kultur ondare honi behar besteko garrantzia ematen al zaio?

Askotan ez gara gure ondareaz jabetzen. Hauek mantentzea ez da batere lan erraza eta, gaur egun errotetatik inolako etekin ekonomikorik ateratzen ez bada ere, lortzen den irabazia oso bestelakoa dela esan genezake; gaur egun, errotak erromantizismoaren antzeko sentimendu bati esker mantentzen ditugu, eta bertatik lortzen dena sentimenduz beteriko mozkina dela esan genezake.

Aste gutxi barru ospatuko da Gipuzkoako Erroten Eguna. Nola ikusten dituzu halako egitasmoak?

Oso garrantzitsuak direla iruditzen zait. Alex Rotetak lan itzela egin du egitasmo hau martxan jartzen eta,



elkarrekin sare moduko bat sortzeko ez ezik, beste jende baten interesa pizteko ere balio izan du.

Lasturko erroten garrantzia azpimarratzeko asmoz, hainbat ekintza antolatzen dituzue.

Errotarekin martxan jarraitzeko eta daukaguna mantendu ahal izateko, garrantzi handia ematen diogu kultur ondarea ezagutzera emateari. Gaur egun, Jose Luis Garmendia da errotaria eta eraikinaren jabea, eta bera arduratzen da instalazioen mantentze-lanez, garia ehotzeaz... eta horrek dakarren guztiaz. Jose Luisekin elkarlanean, gainera, tailerrak eta bestelako ekintza batzuk antolatzen ditugu, eta bertara hurbiltzen den orori instalazio hauek martxan ikusteko aukera eskaintzen diogu. Gu guztion helburua da bertan dugun ondarea ezagutaraztea eta, horregatik, atek zabalik izaten ditugu bertara datozen bisitariarentzat.

Tailerrak antolatzen dituzuela aipatu berri duzu. Nori zuzenduta dago eskaintza hori?

Eskolekin, bestelako talde batzuekin, familiekin... ibiltzen gara lanean, baita beren kabuz datozen bisitariekin ere. Egia esan, sekulako poza ematen digu auzoan dugun altxor paregabe honetaz denok gozatu ahal izateak.

Nolakoak izaten dira bisitak edo tailerrak?

Taldearen arabera moldatzen edo egokitzen ditugu

beti, baita adinaren arabera ere. Batzuetan, bisita soilak izaten dira eta, errota hauen historia gertutik ezagutzeko aukera emateaz gain, instalazioak ere martxan jartzen ditugu. Beste batzuetan, berriz, bertan ekoizten dugun arto-irinarekin talo tailerrak ere antolatzen ditugu.

Zer ikusten (edo egiten) dute partaideek?

Errota zaharrean arto-irina nola egiten den erakutsi eta, artoa eho ondoren, irin horrekin taloak prestatzen irakasten diegu bertara datozei. Amaitzeko, taloak sutan prestatu eta txistorrarekin dastatzen ditugu. Egia esan, polita da bakoitzak egindako lanarekin gozatea eta, gainera, talo eder bat jatea.

Zer gehiago ikas daiteke errotak bisitatzu? Zer nabarmenduko zenuke zuk?

Garai bateko lanbide tradizionalen, bizimoduaren, ohituren... berri izateko aukera ematen digute errotek. Era berean, gure ahaideek inguruan eskura zituzten baliabideekin (ura, gure kasuan) nola lan egiten zuten azaltzeko edo nola bizi ziren erakusteko ere balio dute.

Amaitzeko, Maitane, bisitan datorkigun jendeak badaki zer "altxor" dugun bertan?

Nik uste dut baietz, guk badakigula zer dugun eta etortzen denak ere asko gozaten duela bertan; askotan zoriondu gaituzte halako instalazio historikoez oraindik ere martxan jarraitzen dutelako.

Amagoia Arrieta bigarren geratu da Zagrebeko World Boccia Challengerrean



Amagoia Arrieta, Ekaitz Txintxurreta entrenatzailearekin.

Deban bizi den Amagoia Arrieta kirolaria helburuak beteta bueltatu da nazioarte mailako denboraldiko lehen txapelketatik. Apirilaren 9tik 13ra bitartean Kroaziako hiriburuan jokaturako World Boccia Challengerretik, hain zuzen, zilarrezko domina kolkotik zintzilik zuela etxeratu zen.

Espainiako selekzioko jokalaria debut ona egin zuen BC1 kategorian (eskuekin edo oinekin jaurtitzen duten eta laguntzailea behar duten kirolariak). Sailkapen faseko hiru partidetatik bi irabazi ondoren, B multzoko lider bezala egin zuen jauzi finalerdietara. Lehen partidan, 11-3 emaitzarekin erraz hartu zuen mendean Ana Miranda portugaldarra, eta bigarrenean, berriz, 5-1 nagusitu zen Desiree Segarra selekzioko kidearen aurka. Hirugarren partidan ezin izan zuen Bat El Breitman Hacoen gainditu; 6-8 galdu zuen israeldarraren aurka.

Finalerdietan ere ondo moldatu zen Dordoka Klubeko jokalaria; 4-0 gailendu zitzaion Pielykh Yana ukrainarrari eta, horrenbestez, finalerako txartela bereganatu zuen. Finalean, baina, egungo Europako txapelkunak ezin izan zuen Dora Basic kroaziarra mendean hartu; gogor saiatu bazen ere, 2-3 galdu zuen.

Aukerekin

Dena dela, BAT Basque Teameko kirolariak abuztuaren 28tik irailaren 8ra ospatuko diren Parisko Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko txartel bat lortzeko aukerari eusten dio oraindik ere.

Ranking bidez sartzea da bere aukera bakarra, baina txartela ziurtatuta duen ala ez jakiteko ekainaren 3ra arte itxaron beharko dela zehaztu dute.



Elgoibarrek irabazi du XVI. Aldamar Torneoa

Jose Aldamar Amaiak Bat klubeko presidente eta laguntzaile izan zenaren omenezko haur mailako futbol txapelketa jokatu zuten apirilaren 6an Errota Zarren. Lekeitioko eta Elgoibarko taldeak gonbidatu zituzten txapelketara, eta azken talde horretako jokalariek irabazi zuten garaikurra. Lekeitioko taldekoak bigarren geratu ziren, eta etxeko taldekoek hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Emaitzei dagokienean, Elgoibarrek eta Lekeitiok jokatu zuten lehen partida elgoibartarren aldeko emaitzarekin bukatu zen (1-0). Jardunaldiko bigarren partidan, berriz, Amaiak Batek eta Lekeitiok bana berdindu zuten. Azken partidan, Amaiak Batek Elgoibarko taldea izan zuen aurrez aurre, eta elgoibartarren aldekoa izan zen emaitza (0-3).



Sei taldek parte hartu dute Hiruko Saskibalo Txapelketan

"Adin guztietako" benjamin eta kimu mailako sei taldek parte hartu zuten apirilaren 6an egin zen Hiruko Saskibalo Txapelketan. Debasket Saskibalo Klubaren arduradunak pozik agertu dira deialdiak izan zuen erantzunarekin, eta hitzorduan "adiskidetasuna eta giro ona" nagusitu zirela azpimarratu dute.

Olatu politik, eguraldi ona eta lagun arteko giroa izan dira Zurrumbilo Eguneko protagonista nagusiak



Surfean aritzeko baldintza onak zeudela ikusita, apirilaren 13an ospatu zuen bere egun handia Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteak. Ekintza ugari antolatu zituzten, baina surf, bodyboard eta longboard diziplinak uztartu zituen txapelketa herrikoia izan zen ikusgarriena eta jendetsuena.

"Dezenteko olatuak" eta uda giroko eguraldi ona lagun, 08:00etan itsasoratu ziren lehen lehiakideak; bertan parte hartu zuten 50 bat lagunek olatu artean duten abilezia erakusteko aukera paregabea izan zuten.



Surflariek eskainitako erakustaldiaz jende askok gozatu zuela azaldu dute Zurrumbiloko kideek. Era berean, skate libre saioak eta herriko hainbat musikariek eguerdi partean aparkalekuko oholztan eman zuten kontzertuak ere herritar asko erakarri zituztela gaineratu dute.

18:00ak aldera amaitu zen uretako ikuskizuna eta, jarraian, sari banaketa egin zuten; ekitaldia, gainera, aurreko zuzendaritza batzordeko kideak omentzeko baliatu zuten. Iluntzeko karropoteo musikatuarekin eta bazkideen afariarekin biribildu zuten eguna.

Debako eta Itziarko korrikariek emaitza onak lortu dituzte Kilimon Trail mendi lasterketan

Debako eta Itziarko hainbat korrikalarik parte hartu zuten apirilaren 6an jokatuak Mendaroko XII. Kilimon Trail proban eta, horien artean, Leire Olazabalek, Mikel Zabalak eta orain arteko edizio guztietan parte hartu duen Igon Mancisidorrek lortu zituzten emaitzarik aipagarrienak.

23 kilometroko lasterketa luzean, Gontzal Murgoitio elorriarra (2.05.33) eta Ainara Urrutia aretxabaletarra (2.42.01) nagusitu ziren. Walther Becerra (2.08.30) eta Maite Maiora (2.48.25) helmugaratu ziren bigarren, eta Igon Mancisidor debarra (2.17.37) eta Ainhoa Caporossi (2.48.47) izan ziren hirugarrenak. 11 kilometroko lasterketa motzean, berriz, Imanol Inza zumarragarra (0.56.37) eta Lola Oiartzabal gasteiztarak (1.08.39)



Kilimon Traileko podiuma. JOSU JUARISTI

izan ziren azkarrenak. Bigarren postuak Mikel Zabala itziartarrantzat (0.58.05) eta Leire Olazabal debarrarentzat (1.11.31) izan ziren. Hirugarren postuan, aldiz, Mattin Odriozola (0.58.08) eta Garazi Korra sailkatu ziren (1.13.34).

Apirila / Maiatza

API. 26 (OSTIRALA)

AFARI FEMINISTAK

20:00 Arrano Elkartea.

API. 27 (LARUNBATA)

LIBURUAREN EGUNA

11:00 Liburu azoka, kontzertu akustikoa eta mikro irekia. Kultur Elkartea.

KONTZERTUAK

21:00 Edu Zardoya, Rebel Boys, Jipoiuak. Gaztetxea.

API. 28 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

08:00 Burdin Kurutzen eskutik (Markina-Mendaro). Estalitako pasealekua.

ZUBI TXIKI EGUNA

17:00 Zumardiko kioskoa.

IKUSKIZUNA

19:00 'Mareak' (Toti Martinez de Lezea, Gorka Hermosa eta Edurne Zabalo). Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

API. 30 (ASTEARTEA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Los reyes de la casa' (Delphine de Vigan). Udal liburutegia.

MAI. 2 (OSTEGUNA)

BASO BETE ZIENTZIA

19:00 Eider Aldalur eta Miquel Saumell. Kultur Elkartea.

MAI. 3 (OSTIRALA)

ODOL ATERAKETAK

16:30-20:30 Txanda eskatzeko: 612 40 21 03. Luzaro ikastetxea.

MAI. 4 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:00 Estalitako pasealekua.

BISITA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. San Nikolas plaza. Lastur.

XIV. ERROMERIA EGUNA

Egun osoko egitarau berezia Itziarren.

ITZIARKO GAU IBILDIA

20:00 Donostiako Ondarreta hondartzatik Itziarrera.

MAI. 5 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

MAI. 6 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

MAI. 9 (OSTEGUNA)

BASO BETE ZIENTZIA

19:00 Ane Iriondo eta Mattin Urbietia. Kultur Elkartea.

MAI. 11 (LARUNBATA)

IRTEERA GEOLOGIKOA

09:30 'Historiaurreko Bailara' (Asier Hilario eta Asier Gomez). Portua.

OSTOLAZA SARIAK

12:00 Sari banaketa ekitaldia. Kultur Elkartea.

MAI. 12 (IGANDEA)

HERRI URRATS

08:45 Irteera autobusez Deba eta Itziartik. Tiketak Zalburdin eta Bikainen salgai, 15 euroan.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

MAI. 12-15

GALIZIARA IRTEERA

Arbil Elkartearen eskutik.

MAI. 13 (ASTELEHENA)

HITZALDIA

18:00 'Haurrak eta pantailak' (Miren Ros). Kultur Elkartea.

MAI. 14 (ASTEARTEA)

HITZALDIA

18:00 'Pantaila, mugikor eta bideojokoei buruzko kontzientziazioa eta hausnarketa' (Miren Ros). Itziar.

MAI. 15 (ASTEAZKENA)

ERRIGORA

10:00-13:00 / 18:00-20:00. Produktuen banaketa. Aldats pilotalekua.

MAI. 16 (OSTEGUNA)

BASO BETE ZIENTZIA

19:00 Maddi Astigarraga eta Jon Lafuente. Kultur Elkartea.

MAI. 17 (OSTIRALA)

KONTZERTUA

22:00 Musika Banda eta Banda Gaztea. Elizako klaustroa.

MAI. 17-18-19

DEBARREN EGUNA

Egitarau berezia izango da, udalaren eta herriko taldeen ekimenez.



ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

ZALDUEGI Apirilak 29, 30 / Maiatzak 1, 2, 17, 18, 19.

BURGEO ZUAZO Maiatzak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGEO ZUAZO
Apirilak 27 / Maiatzak 4

ZALDUEGI
Maiatzak 11 eta 18

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus
Zuhatza Euskara Elkartea



IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitetz gurekin harremanetan maiatzaren 13a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com | 943 19 13 83



Deba


Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa


info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.



Uzuri
optika audio



PPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

*

IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOIA



**UNI
EIBAR
ERMUA**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAHIA
DEPARTAMENTUEN ERAGILEKON

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK


<p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">F</p>		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> EGOKITZAPEN FISIKOIA <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOIA
<p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">M</p>		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> NAZIOARTEKO MERKATARITZA <input checked="" type="checkbox"/> GARRAIO ETA LOGISTIKA <input checked="" type="checkbox"/> MERKATARITZA JARDUERAK
<p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">A</p>		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK <small>+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.</small> <input checked="" type="checkbox"/> ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
<p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">I</p>		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA <input checked="" type="checkbox"/> WEB APLIKAZIOEN GARAPENA <input checked="" type="checkbox"/> PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA <input checked="" type="checkbox"/> SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idadzaritza@uni.eus | @uni.eus



BA AL ZENEKIEN...

...Errota Zar futbol zelaiaren inaugurazio partidan 3.542 ikusle izan zirela?




Ez genuke Amaiak Bat ezagutuko aurretik bi futbol talde egon ez balira: Or-Nauk (1913-1918) eta Lagun-Artea (1920-1927). Azken talde hori desegin egin zen taldeko zortzi jokalaria lehen mailako taldeetan fitxatu zituztenean. Hiru urte beranduago, 1930eko udan, jaio zen Amaiak Bat. Klubak erabili zuen lehen zelaiaren izena Montreal zen; 1924. urtean eraiki zuten, hondartza aldean. Errota Zar, aldiz, 1948. urtean eraiki zuten eta Eibarren aurka jokatu zuten inaugurazio partida. Zein izan zen partidaren emaitza? 2-0, etxeko taldearen alde.

ITURRIA: AMAIAK BAT

LABIRINTOA | Zailtasuna: Erdibidekoa

Sarrera bat, hamaika bide, irteera bakarra. Lagunduko al diguzu topatzen?



KENKEN DENBORA-PASA MATEMATIKOA | Zailtasuna: Erraza

Nola jolastu?

Lauki-sarean 1etik 5era bitarteko zenbaki guztiak kokatuko ditugu errenkada eta zutabe bakoitzean, bat ere errepikatu gabe. Gainera, lauki-sarea atal ezberdinetan banatua dago, eta horietako bakoitzean ikur matematiko bat (kasu honetan, batuketa) eta zenbaki bat azaltzen dira. Zenbakizko balio hori atalean dauden zenbakiekin eragiketa egitean lortzen den emaitza izan behar da.

1	5	4	2	3
2	1	5	3	4
5	3	2	4	1
3	4	1	5	2
4	2	3	1	5

6+		9+		
3+	5	5+		11+
	7+	7+		
7+			3+	
	6+		6+	

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE

SCHOOL
OF ENGLISH

**Uztaileen
First-Advanced
intentsiboak
eta txikienezako
tailerrak**

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Hondartza ondoan
Urte gutxian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA

muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



KOLOREZ BLAI

UDALEKUAK 2024



euskara
elkartea



IZEN-EMATEA

Online:

www.berriketan.eus/udalekuak

Izen-emate presentziala:

Zuhatza Euskara Elkarte
(Ifar kalea 12, behe)

09:30-12:00 Maiatzak 2, 3, 10.

15:30-18:00 Maiatzak 6, 7, 8, 9.

TXANDAK

Lehenengo txanda

Uztailak 1 - Uztailak 12

HH 5 (2018) eta LH 1-2 (2017-2016)

Bigarren txanda

Uztailak 15 - Uztailak 26

LH 3-4-5-6 (2015-2014-2013-2012)

Astelehenetik ostiralera 09:30-13:00